

Fracking-ari eta etorkizuneko energia-erronkei buruzko hitzaldia Antonio Aretxabala geologoaren eskutik

'Grafika Soziala 05: Fracking-a' egitasmoaren baitan, Cristina Enea Fundazioak "Los retos energéticos para el ser humano. ¿Podremos seguir viviendo en el planeta?" izeneko hitzaldia antolatu du maiatzaren 14an, osteguna, Donostiako Udaletxean (19:00etan), Antonio Aretxabala geologoaren eskutik.



Gizakiak azken bi mendeetan erabili dituen energia iturriak, aldaketa klimatikoaren erantzule nagusiak dira; gainera orain, energia sistema garbiago baterako trantsizioaren premiak, energia iturri primarioen eraldaketa eta ustiapenaren gero eta eraginkortasun energetiko zein ekonomiko eskasagoarekin bat egiten du.

Antonio Aretxabala geologoa eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea da, eta hitzaldian gizakiak gaur egun eta etorkizunerako dituen energia-erronka nagusiak aztertuko ditu, bai eta fracking-ak erronka horretan duen papera azaldu ere.

Hitzaldia maiatzaren 14an izango da, osteguna, arratsaldeko 19:00etan Donostiako Udaletxeko Udalbatza aretoan.

Grafika Soziala 05: Fracking-a

Hitzaldia Cristina Enea Fundazioak antolatu duen 'Grafika Soziala 05: Fracking-a' egitasmoaren egitarauaren baitan kokatzen da. Oraingo edizio honetan mugimendu sozial, eragile eta talde ezberdinek fracking-aren kontrako borrokan erabilitako ikusentzunezko materiala bildu da, maiatzaren 24 arte Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean ikusgai egongo den erakusketan. Gaiari lotuta, hiru hitzaldi ere antolatu dira, Antonio Aretxabalaena hiruretan azkena izanik.

Charla sobre fracking y los retos energéticos del futuro, con el geólogo Antonio Aretxabala

Enmarcada en la programación del proyecto 'Gráfico Social 05: Fracking', Fundación Cristina Enea organiza el jueves 14 de mayo la charla "Los retos energéticos para el ser humano. ¿Podremos seguir viviendo en el planeta?", del geólogo Antonio Aretxabala, en el Ayuntamiento de San Sebastián (19:00 h.).



Las fuentes de energía usadas por el ser humano en los dos últimos siglos son la principal causa del cambio climático; además, el cada vez menor rendimiento energético y económico en la extracción y transformación de fuentes de energía primaria, inciden en el debate sobre los objetivos y prioridades en la transición hacia un sistema energético con menos emisiones contaminantes.

Antonio Aretxabala, geólogo y profesor de la Universidad de Navarra, analizará los principales retos energéticos que tiene el ser humano hoy en día, y tendrá en el futuro, además de exponer qué papel juega el fracking en ese reto.

La charla tendrá lugar el jueves 14 de mayo, a las 19:00 horas en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de San Sebastián.

Gráfica Social 05: Fracking

La charla se enmarca en la programación de 'Gráfica Social 05: Fracking', organizado por Fundación Cristina Enea. Esta edición está dedicada al fracking, y recoge en una muestra que se puede visitar en el Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea hasta el 24 de mayo, diverso material audiovisual generado por diferentes plataformas y movimientos sociales, en su lucha contra el fracking. Relacionadas con el tema, la programación comprende también tres charlas, de las cuales ésta de Antonio Aretxabala será la última.